

Pista-Zabalean 2.

Eskola-jardunaldia

2014/03/15



Larunbatan, martxoak 15, pistako bigarren jardunaldia ospatu zen Mendizorrotzan: giro ona bizi izan zen pistan, arratsaldea hotz pixkarekin amaitu arren. Haize parrastatsuaaren abiadura 4m/s-ko baino handiagoa izan zen eta emaitz pertsonal batzuen erregistroak baliogabetu egin zituen.

Gure zailutarrek beti bezala txapelketarekin disfrutatu zuten. Benjamin kategorian Borja Irazolak, Ainhoa Fernandez de Betoñok, Iñigo Garciak eta June Kneiszek parte hartu zuten. 500 metrotan Borjak 10 puntu lortu zituen eta Iñigok 8, 1. eta 2. tokiak okupatu zituzten hurrenez hurren; nesken lasterketan, June 8 punturekin 8. sailkatu zen, eta Ainhoak 7-rekin 12. sartu zen. Pisu jaurtiketan Borjak 2kg-ko bola 12 puntutaraino bidaltzea lortu zuen 2. postua irabaziz, eta Iñigok 8 puntutaraino egin zuen jaurtiketa 5. tokia lortuz. 4 zailutarrek 4x60 metro erreleborako taldea egin zuten; 7 puntu lortu zituzten 3. postuan amaituz.

Kimu kategorian, Paula Sabadak, Ainhoa Arranzek, Jon Arenzanak, Endika Barredok, Joane Maizek, Deina Castrok eta Itziar Perezek parte hartu zuten. 500 metrotan Itziarrek garaipena lortu zuen amaiera estua izan eta gero, 9 puntu lortuz. Paulak 6. postuan sartu zen 8 punturekin; mutilen lasterketan, Jonek 11. tokian sartu zen 8 puntu lortuz, eta Endikak 7 puntu lortu zituen 15. postuan amaituz. Joanek altuera jauzian irabazi zuen 9 puntu lortuz, eta 2kg-ko mailu biguna proban artefaktoa 10 puntutaraino bidali zuen 2. postuan amaituz: proba berberan Ainhoak mailua 7 puntutaraino bidali zuen eta 11. postua lortu zuen. Jonek ere altuera jauzian parte hartu zuen 6 puntu lortuz eta 10. postuan amaituz. 4x60 metro errelebo proban Jonek ezin izan zuen partu hartu 500 metrotan mina egin zuelako, eta errelebo taldeak misto egin ziren La Blanca taldearen atletekin; Paula, Deina, Endika eta Nora Gonzalez osatutako taldeak 7 puntu lortu zituen 3. postuan amaituz, eta Joane, Itziar, Ainhoa eta Jon Manrique osatutako laukoteak 6 puntu lortu zituen 6. postua okupatuz.

Haur kategorian Paula Tempranoren, Amaia Azkorretaren, Andoni Arranzen, Eukene Maizen, Nicolas Herreroen eta Teresa Estivarizen (pista probatan lehen aldiz parte hartzen zuena) parte hartzeak eduki genituen. Paulak 3000 metrotan parte hartu zuen eta 13.51´9 minutukin 5. postua okupatu zuen. 80 metro hezietan Andoni bere seriean 2. izan zen 15,76(+1,4) segundurekin, eta Eukene 3. izan zen bere seriean 16,59(+2,1) segundurekin; nesken serietan Teresa 5. tokian sartu zen 18,49(+2,8) segundurekin. 150 metrotan Amaia bere seriean 6. izan zen 23,52(+4,1) segundurekin, Andonik bere seriea irabazi zuen, 19,14(+0,8) segundurekin –atletaren emaitz pertsonala- eta Eukene 5. izan zen 20,92(+2,9) segundurekin. Hirukoitz jauzian Teresa neska 7,63(+1,6) metrokin 13. izan zen; mutilen kategorian Nicok 6. tokia lortu zuen 8,93(+3,6) metroko jauzi hobearekin, Andonik 5. izan zen 9,54(+1,7) metrokin, eta Eukene 3. 9,74(+4,6) metrokin; pena handia haizeak 2m/s-ko abiadura gainditzeak eta Eukenen emaitza, emaitz pertsonaltzat ezin dela hartu, hurrengorako Eukene!!

Osmar eta Lorena zuekin egongo dira 3. jardunaldian -martxoak 22, larunbatan.

Ni Donostian egongo naiz Aintzanerekin Espaniako Junior Txapelketan parte hartuko duelako.

ZORTE ON GUZTIOI!!!